



ASTEASUKO UDALA

(GIPUZKOA)

50/2020 ALKATETZA DEKRETUA

Udal honen 2019ko aurrekontuaren likidazioari buruz Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat datorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehen. Udal honen 2019ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2019-12-31n:		988.685,87
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2019-12-31n:		221.208,65
Aurrekontuko zordunak :	217.652,12	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	3.556,53	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2019-12-31n:		272.242,01
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	119.018,06	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	153.223,95	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		937.652,51
5.- Saldo kobragaitzak:		51.822,57
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		885.829,94

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-391.904,10
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-573,70
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	835.450,62
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	442.972,82



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	251.519,68
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	260.029,42
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	511.549,10

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Asteasun, 2020ko otsailaren 26an

ALKATE ANDREA

Nire aurrean,
BITARTEKO IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA